

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

PASAIKO UDALA

4249

IRAGARKIA, Pasaiako zonakatze akustikoa onartzeari buruzkoa.

Pasaiako jarduneko alkateak emandako 2016ko abuztuaren 3ko 2016/946 ebazpenaren eta alkateak emandako 2016ko irailaren 14ko 2016/1080 ebazpenaren bidez, erabaki hau hartu da:

Aurrekariak

Pasaiako alkate-udalburuak 2016ko urtarrilaren 19an emandako 2016/66 ebazpenaren bidez, udalerraren zarata-mapa onartu zen, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 12. eta 13. artikuluetan ezarritako izapidetzearen arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, EAEko hots-kutsadurari buruzkoak, 10. artikuluan ezartzen du hamar mila biztanletik gorako udalek zarata-mapa egin beharra dutela, eta zarata-mapa horri esker gauzatu ahalko dela udal-lurrei eragiten dieten eta tokiko administrazioak garrantzizkotzat jotzen dituen fokuek dekretu honen aplikazio-eremuan sortzen duten zarata-mailaren ebaluazio orokorra.

Gorago aipatutako 213/2012 Dekretuaren 13. artikulua arabera, zarata-mapak jendaurrean jarri ziren gutxienez hilabetez. Horretarako, iragarkia argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (2015-12-14koa, 237. zk.) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2015-11-26koa, 227 zk.).

Zarata-mapa egiteko, aldeztu aurretik zonakatze akustikoa egin da, lurzoruaren egungo edo etorkizuneko erabilera oinarritzat harturik, 213/2012 Dekretuaren 21.1. artikuluan ezartzen den bezala. Eta horren arabera, zonakatze akustikoa ere onartu egin behar da, nahiz eta ez den ezartzen zer prozedurari jarraitu behar zaion horretarako.

Estatuko legeriak ere (1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, Zaratar buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitatearen helburuei eta emisio akustikoei dagokienez) ez du ezartzen zer prozedurari jarraitu behar zaion zonakatze akustikoa onartzeko garaian: Hala ere, 13. artikuluan zonakatzearen eta planeamenduaren arteko lotura ezartzen du:

Planeamenduko elementu guztiek esplizituki jasoko dute jarduketa-azaleraren zonakatze akustikoari dagokion mugaketa. Ereku akustikoetako mugaketa planeamendu orokorrean jasota dagoenean, mugaketa hori erabiliko da.

Planeamendu orokorrean aldaketak, berrikusketak eta egokitzapenak egiten badira, eta horien ondorioz lurzoruaren erabilera aldatzen badira, zonakatze akustikoa berrikusi beharko da dagokion lurralde-esparruan.

Era berean, garapeneko hirigintza-planak izapidetzearen ondorioz lurzoruaren erabilera xehatuak ezartzen direnean, ereku akustikoen mugaketa egin beharko da.

2016ko urriaren 6a, osteguna

Ohar horiek kontuan izan beharko dira etorkizunean planeamendua aldatu, berrikusi edo ego-kitzen denean.

Horiek guztiak eta udaleko Zerbitzu Teknikoek 2016-06-03an eginiko txostena kontuan hartuta, eta Hirigintzako Administrazio Orokorreko teknikariak 2016ko abuztuaren 2an ebazpen-proposamenaren eman eta gero,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Onartzea Pasaia udalerriko zonakatze akustikoa, erantsitako planoetan jasotakoa.

Bigarrena.– Zonakatze akustikoa udalaren web orrian (www.pasaia.net) argitaratzea, eta onartzeko erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta beronen aurka errekurtsioa jar daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzien Epaitegian, auzi hauek arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epearen barruan.

Bestela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 52.1 artikulua dioenaren arabera, interesdunak berraztertzeko errekurtsioa aurkez dezake goiburuan aipatutako organoan, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean, eta errekurtsio hori beste hilabete baten barruan ebatziko da. Epe horren amaieran ebazpenik eman ez bada, errekurtsioa ezetsizat joko da, eta administrazioarekiko auzibidea irekita geratuko da.

Interesdunak, halaber, komenigarria deritzon beste edozein errekurtsio jarri ahal izango du.

Pasaia, 2016ko irailaren 14a.

Alkatea,
IZASKUN GÓMEZ CERMEÑO.